



Euskararen ordenantza. Behin betiko onespena

Lakuntzako Udalak, 2009ko apirilaren 30eko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Euskeraren ordenantza.

Onespenaren erabakia 2009ko 72. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 12an. Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betikoz onetsi da eta ordenantza osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu zuen hartan, xedatutakoari jarraikiz.

Lakuntzan, 2009ko irailaren 28an.-Alkatea, Jose Ramon Garin Lizarraga.

LAKUNTZAKO UDALEKO EUSKARAREN ORDENANTZA

SARRERA

Euskara Euskal Herriko hizkuntza da, berezkoa eta ez ofiziala lurralde osoan. Sakanako zein Lakuntzako biztanleen berezko hizkuntza antzinatek bada ere, gaur egun oraindik, euskararen biziraupena kinka larrian dago.

Lakuntzako Udalak berea duen hizkuntza ondarearen aldeko neurriak ezarri nahi ditu. Bi hizkuntza ofizialen ikuspegitik, biztanle guztiei, oro har, bermatu behar zaizkie euren hizkuntza-eskubideak. Mendetan, ordea, euskara baztertu egin da, udal-administrazioetan ez ezik, harreman publikoetan. Hortaz, gaur egun, Lakuntzako Udalaren lehentasuna da euskara sustatzea, hemengo berezko hizkuntza delako.

Herritarren eskubidea da, 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak 6. artikuluan aitortzen dien bezala, administrazio publikoekiko harremanean euskara ere erabili ahal izatea. Otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuak ere, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen du.

Ordenantza honen xedea izango da hizkuntza erabileraren normalizaziorako urratsak finkatzea Lakuntzako Udalean zein udalerrien eremuan; euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan hizkuntza ere izatea; herritarrei beraiek aukeratutako hizkuntzan arreta ematea; euskararen erabilera herrian sustatzea. Ordenantza honen bitartez Lakuntzako Udalak tresna egokia sortu du euskararen erabilera sustatu eta arautzeko.

I.-Aplikazio eremua.

1. artikulua. Ordenantza hau aplikatuko da Lakuntzako Udalaren, haren menpeko entitate, zerbitzu-esleipena egiten zaien hornitzaile zein enpresa eta zerbitzuetan. Edozein kudeaketa mota edukita ere ordenantza hau aplikatuko da Udalaren eskumeneko zerbitzuak hirugarrenek ematen dutenean.

II.-Hizkuntzen erabilera orokorra.

2. artikulua. Lakuntzako Udalak, oro har, bere harremanetan euskara erabiliko du. Erabiltzaileek hala eskatuz gero, gaztelaniaz egingo zaie.

III.-Barneko erabilera.

3. artikulua. Administrazio jarduera. Barneko administrazio jarduera euskaraz egingen da. Euskara hutsean egiterik ez dagoen kasuetan bi hizkuntza ofizialean egingen da, betiere, euskarari elebitasun normalizatzailearen trataera emanda.

4. artikulua. Udal-hautetsien arteko jarduera. Udal-hautetsien arteko jarduera euskaraz izango da. Beharrezkoa bada, itzulpen lanetarako aurreikuspena egingen da. Bilerak euskaraz egingen dira, eta bertatik ateratzen diren akta, gutun, jakinarazpen eta agiriak euskaraz idatziko dira.

5. artikulua. Inprimaki eta agiriak. Udaleko organoek erabiltzen dituzten barne inprimakiak eta agiriak euskaraz eginen dira. Beharrezkoa den kasuetarako bi hizkuntza ofizialetan ere prestatuko dira, betiere, euskarari elebitasun normalizatzailearen trataera emanda.

6. artikulua. Erregistroa. Lakuntzako Udalaren Erregistroan aurkeztutako agiriak euskaraz inskribatuko dira ahal diren kasu guztietan. Erregistrotik ateratzen diren ziurtagiriak euskaraz eginen dira eskatzaileak hala eskatuz gero; bestela, hizkuntza bietan.

7. artikulua. Udal-batzordeak. Udal-batzordeen deialdi, akta, agiri, jakinarazpen eta bestelakoak euskaraz edo ele bietan eginen dira. Bi hizkuntzak erabiltzen diren kasuetan euskaraz elebitasun normalizatzailearako trataera emanen zaio.

8. artikulua. Errotulu eta bereizgarriak. Udaleko tokietako errotulu eta bereizgarriak bi elez egonen dira. Euskarari elebitasun normalizatzailearen trataera emanen zaio. Piktogramak erabiltzen diren kasuetan, euskarazko testua idatziko da.

9. artikulua. Menbrete eta zigiluak. Inprimakietako menbreteak, gomazko zigiluak, tinbre-zigiluak eta barne-funtzionamenduko nahiz proiektio publikoa duten agirietan zigilatzeak euskaraz eta gaztelaniaz egonen dira, euskarazkoa lehenetsiz.

10. artikulua. Informatika aplikazioak. Programa informatikoak eta Lakuntzako Udalaren bulegoetan erabiltzeko eskuratzen diren materialak, euskaraz egonen dira; ezinezkoa denean ele bietan eskuratuko dira.

11. artikulua. Txostenak eta proiektu teknikoak. Udalak hirugarrenei kontratatzen dizkien ikerlan, proiektu eta antzeko lanak euskaraz edo hizkuntza bietan aurkeztuko dira, betiere, euskarari elebitasun normalizatzailearako trataera emanaz.

IV.-Erakundeekiko harremanak.

12. artikulua. Bidali beharreko agiriak. Lakuntzako Udalak agiriak euskaraz bidaliko dizkie euskara hizkuntza ofiziala duten administrazio edo erakunde publikoei.

13. artikulua. Jasotako agiriak. Lakuntzako Udalak euskarazko agiriak eskatuko ditu euskara hizkuntza ofiziala duten administrazio edo erakunde publikoetan.

14. artikulua. Sakanako Udalak. Sakanako udalei euskaraz bidaliko zaizkie mezuak edo jakinarazpenak, bai eta euskara hizkuntza ofiziala duten edo euskaraz bizirik dirauen eskualdeetako pertsona fisiko eta juridikoei ere.

15. artikulua. Gaztelaniazko komunikazioak. Gaztelaniaz eskatzen diren komunikazioetarako, bi elez idatzitako dokumentuak prestatuko dira, betiere, euskarari elebitasun normalizatzailearako trataera emanaz.

V.-Administratuekiko harremanak.

16. artikulua. Herritarren hizkuntza eskubideak. Lakuntzako Udaleko herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dute, ahoz zein idatziz.

17. artikulua. Administratuen eskubideak. Administratuek eskubidea izango dute Udalarekin, azpikontratutako enpresekin eta Udalaren menpeko organismo ororekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz izateko, zerbitzuaren kalitatearen murrizketarik gabe.

18. artikulua. Pertsona fisikoen komunikazioak. Lakuntzako Udalak euskaraz nahiz gaztelaniaz onartuko ditu pertsona fisikoen komunikazioak.

19. artikulua. Udaleko bilerak. Administratuek eskubidea dute Udaleko edozein bileratan euskaraz aritzeko.

20. artikulua. Herritarrentzako inprimaki eta agiriak. Herritarrei ematen zaizkien inprimakiak euskaraz egonen dira. Gaztelaniaz eskatuz gero, bi elez idatziriko dokumentua emango zaie, betiere, euskarari elebitasun normalizatzailearako trataera emanaz.

21. artikulua. Ahozko hizkuntza. Lakuntzako Udaleko langileek hasieraz eta beti, euskaraz egingo diete erabiltzaileei. Herritarrari lehen hitza, erantzuna, eta agurra euskaraz egingo zaie. Herritarrak hala eskatuz gero, gaztelaniaz eginen zaio.

VI.-Oharrak, argitalpenak, jendaurreko egintzak eta internet.

22. artikulua. Argitalpen, kartel eta oharrak. Euskaraz eginen dira Lakuntzako Udalaren eta haren menpeko erakunde edo zerbitzuen xedapenak, aldizkariak, kartelak, oharrak eta antzekoak. Bestela eskatzen duten kasuetan bi elez eginenen da, euskarari elebitasun normalizatzaileko trataera emanez.

23. artikulua. Publizitatea. Iragarkiak eta publizitatea euskaraz izango dira Lakuntzako Udalak, bere menpeko erakundeek, esleitutako zerbitzuen hornitzaile zein enpresek ateratzen dutenean. Ezin bada, betiere euskaraz eta gaztelaniaz eginen dira.

24. artikulua. Jendaurreko jarduna. Lakuntzako Udaleko kargudunek euskara erabiliko dute jendaurreko jardunean. Bi elez egin behar den kasuetan euskara lehenetsiko da. Beharrezkoa denerako itzulpena erabiliko da.

25. artikulua. Eskualdeko komunikabideak. Publizitatea egiteko garaian eskualdeko komunikabide euskaldunak kontuan hartuko dira.

26. artikulua. Internet: edukiak. Lakuntzako Udalaren webguneko edukiak euskaraz zein gaztelaniaz egonen dira.

27. artikulua. Internet: hasierako sarbidea. Interneteko edukietara jotzeko hasierako sarbidea euskaraz izatea bermatuko da. Euskarazko orrietan beste hizkuntzetarako lotura jarriko da.

28. artikulua. Internet: izapideak. Internet bitartez egin litezkeen izapideak bi hizkuntzatan egin ahal izango dira.

VIII.-Langileen kontratazioa.

29. artikulua. Plantilla organikoa. Plantilla organikoan zehaztuko dira lanpostu bakoitza betetzeko egiaztatu beharreko hizkuntza eskakizunak.

30. artikulua. Kontratazio berriak. Euskararen ezagutza ezinbestekoa izango da honako kontratazio berrietan: funtzionario izaera, behin betiko, zein behin-behineko lan izaera duten lanpostuetan; eta kontratazio hauek hirugarren enpresa, erakunde edo entitateen bitartez egiten direnean. Horretarako, Lakuntzako Udalak Osoko Bilkuran onartuko ditu lanpostu bakoitzari dagozkion hizkuntza eskakizunak. Ordenantza hau legez onartutakoan hartuko dute indarra hizkuntza eskakizunek.

31. artikulua. Barne-sustapena eta leku-aldaketak. Ezin izango da dagokion hizkuntza eskakizuna bete gabe barne-sustapen bidez lanpostuak eskuratzea; ezta leku-aldaketa edo transferentzia bidez ere.

32. artikulua. Hizkuntza gaitasun egiaztatze probak. Langileen kontratazioarako hautaketa prozesuetan Lakuntzako Udalak hizkuntza gaitasuna egiaztatze probak egin ahal izango ditu. Horretarako, Lakuntzako Udalak Euskara Zerbitzuari euskara probak egin ahal izateko laguntza eskatuko dio lanpostuak betetzeko deialdiak egin aurretik.

33. artikulua. Hizkuntza gaitasun agiriak. Hautagai guztiei proba egin ezean, hautagaiek agiri ofizialaren bidez egiaztatu beharko dute hizkuntza gaitasuna.

34. artikulua. Bi hizkuntzen erabilera. Lakuntzako Udalak zuzenean edo hirugarrenen bitartez kontratatzen dituen langileek, euskaraz zein gaztelaniaz lan egiteko gai izan beharko dute, eta bi hizkuntza ofizialetan lan egin beharko dute horrela dagokionean.

35. artikulua. Deialdietan bi hizkuntzen erabilera. Lakuntzako Udalak egiten dituen kontratazioetarako deialdietan, zuzenean edo hirugarrenen bitartez egiten direnean, bi hizkuntza ofizialetan lan egin beharko dela zehaztuko da.

36. artikulua. Hizkuntza eskakizunaren derrigortasuna. Lanposturen bat bete behar denean, inork ez badu betetzen dagokion hizkuntza eskakizuna, lanpostua hutsik geldituko da eta beste deialdi bat eginen da.

IX.-Langileen euskalduntzea.

37. artikulua. Neurriak III. eta V. atala betetzeko. Lakuntzako Udalak III. eta V. atala betetzen direla bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu.

38. artikulua. Lanpostuen hizkuntza eskakizunak. Lakuntzako Udalak lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizunak egokitu eta zehaztuko ditu, Osoko Bilkurak onetsi ditzen. Ordenantza hau legez onartutakoan hartuko dute indarra hizkuntza eskakizunek.

39. artikulua. Euskalduntze plana. Lakuntzako Udalak bere zerbitzuak eta sailak euskaraz edo hizkuntza bietan jarduteko gai izan daitezen neurriak hartuko ditu. Udalak kontratatuta dituen langileentzat, euren lanari dagokion hizkuntza gaitasuna ziurtatzeko, neurri egokiak hartuko ditu. Horretarako plangintza bat prestatuko du.

40. artikulua. Ikastaroetarako baimenak. Lakuntzako Udalak bere langileei baimena emanen die euskara ikastaroetara joateko, bere betekizunetarako euskara maila egokia lor dezaten. Behar den kasuetarako, diru-laguntza emateko aurreikuspena egingen du.

X.-Diru-laguntzak.

41. artikulua. Euskarazko jardueren lehentasuna. Lakuntzako herritarrek udalerrian euskara erabiltzeko eskubidea dute. Udalak, euskara berea duen ondareztat hartzen du. Erabilera sustatzeko eta presentzia gehitzeko xedearekin bat eginez, diru-laguntzen banaketarako irizpideetan, kontuan hartuko ditu hizkuntza normalizaziorako irizpideak. Euskarazko jarduerak sustatzen dituzten elkarte eta taldeak lehenetsiko ditu diru banaketetan.

42. artikulua. Gizarte eta kirol alorreko jarduerak. Lakuntzako Udalak hizkuntzaren erabileraren normalizazioarako irizpidea kontuan izango du kultura, kirol, aisialdi, hezkuntza eta gizarte arloko kontuekin loturiko diru-laguntzak ematerakoan. Diru-laguntza jasotzen duten elkarte, erakunde eta entitate, pertsona fisiko zein juridikoek ahoz zein idatziz euskara lehenetsi beharko dute honakoetan: argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar, egiten dituzten agerpen zein ospakizun publiko, iragarki eta bestelakoetan.

XI.-Toponimia.

43. Lakuntzako Udalaren ardurapeko toponimia -kaleak, plazak, eraikuntzak, hirigintzako osagaiak eta bestelako entitateak-Osoko Bilkuran erabakiko da. Euskarazko toponimoak grafia euskaldunez idatziko dira. Horretarako, Euskaltzaindiaren arau, aholku eta gomendioak jarraituko ditu. Euskaldunak ez diren toponimoak gaztelaniazko grafiaz idatziko dira.

XII.-Euskararen erabilera herrian.

44. artikulua. Jarduera planak. Lakuntzako Udalak ahalegin berezia egingen du jendeak euskaraz jakin eta hitz egin dezan. Gizarteko esparru guztietan euskararen erabilera hedatzea izanen du helburu. Horretarako, jarduera planak zehaztuko ditu Sakanako Mankomunitatearekin lankidetzan.

45. artikulua. Haurren hezkuntza. Haurrek euskara zailtasunik gabe barnera dezaten, ezinbestekoa da lehen urteetan jasotzen duten hezkuntza euskaraz izatea. Hori dela-eta, Udalak Lakuntzan haur hezkuntza euskalduna izan dadin bermatuko du.

46. artikulua. Musika eskola. Udalaren musika eskolan musika hizkuntza eta edozein tresna jotzen ikasteko lerro euskalduna bermatuko da.

47. artikulua. Liburutegi eta ludoteka zerbitzua. Udal liburutegi eta ludotekan zerbitzua euskaraz erabiltzeko aukera bermatuko zaie herritarrei.

48. artikulua. Ikasketak. Udalak antolatu, kudeatu eta hirugarrenei esleitutako ikasketak euskaraz egiteko eskubidea bermatuko da.

49. artikulua. Euskara Batzordea. Lakuntzan euskararen ezagutza eta erabilera zabaltze aldera Udalak Euskara Batzordea bultzatuko du.

50. artikulua. Euskalduntzeko ikastaroak. Euskararen presentzia gehitu, eta erabilera sustatze aldera, helduen euskalduntze-alfabetatze ikastaroetan parte hartzen dutenentzako diru-laguntzak aurreikusiko ditu udal-aurrekontuetan. Euskalduntze-alfabetatzeko diru-laguntzen esleipenerako irizpideak finkatzeko eskumena izanen du.

51. artikulua. Ospakizunak eta aisialdia. Kultura, jaiak, festak eta aisiaren inguruan antolatzen diren jardueretan euskara lehenetsiko da.

52. artikulua. Baimenak emateko. Lakuntzako Udalak herritarren hizkuntza eskubideen berri eman eta aldeko jarrera agertzeko konpromisoa eskatuko du honakoetan: Udaleko azpiegitura eta materialak erabiltzeko baimena ematerakoan; lur-zoru publikoan leku hartzen duten jardueretarako baimenetan; publizitatea jartzeko baimenetan.

53. artikulua. Baimenak lortzeko. Aurreko puntuan aipatutako kasuetan baimena lortu ahal izateko euskara lehenetsi beharko da honakoetan: baimen eskaeretan, iragarki, idazki, kartel edo bestelakorik herritarrei banatu behar zaienean, edo euren bistan jarri behar direnean. Baldintza hau beteko ez balitz, Lakuntzako Udalak baimena ez emateko edo kentzeko ahalmena izango du.

XIII.-Herritar euskaldunak.

54. artikulua. Lakuntzako Udalak aldian behin neurketak egingen ditu herriko euskal hiztunen kopurua jakiteko. Xedea herriko egoera soziolinguistikoa zein den hobeki ezagutzea izango da. Horrela, egoera horri egokituko zaizkion kanpainak diseinatu ahal izango ditu, eta, Lakuntzako herritarren fitxategia osatuko du, borondatezko izen-emateen bitartez.

55. artikulua. Datu Pertsonalak Babesteko Abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 20.2 artikulua araberan, honako ezaugarriak izanen ditu herriko euskal hiztunen fitxategiak:

a) Xedea eta aurreikusitako erabilera: herri mailako lan tresna edukitzea, euskararen sustapena neurrira diseinatutako kanpainen bitartez landu ahal izateko.

b) Zein pertsona eta kolektiborengan duen eragin: Lakuntzako herritarrengan.

c) Datu bilketaren prozedura: datuak inprimaki batean emango ditu pertsona interedunak, edo pertsona hau legalki ordezkatzeko duenak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta bertan bildutako izaera pertsonaleko datuak:

1. Identifikazio datuak:

- Izen-abizenak.
- Helbidea.
- Telefonoak.
- Helbide elektronikoa.

2. Izaera pertsonaleko datuak:

- Jaioturtea eta jaiolekua.
- Sexua.

3. Datu akademiko eta profesionalak.

- Prestakuntza.

e) Izaera pertsonaleko datuen lagapena: fitxategiko datuak ez zaizkio lagako pertsona interesaduna ez den inori; ez beste pertsonari, ezta entitatei ere. Ez dira nazioarteko transferentziak egingo.

f) Fitxategiaren ardura duen unitate organikoa: Lakuntzako Udala.

g) Sarbide, zuzenketa eta oposizio eskubideak erabili ahal izateko unitatea: Lakuntzako Udala, Herriko Plaza 1, 31830 Lakuntza; telefonoa 948 576015; lakuntzaudala@teleline.es.

h) Segurtasun neurriak: Lakuntzako Udalaren segurtasun dokumentuan finkatutako neurriak hartuko dira oinarritzko mailako datuentzat.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.-Lakuntzako Udaleko Euskara Batzordeak Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekin batera ahalmena izanen du honakoetarako: ordenantza hau bete dadin zer-nolako jarraipena egin behar den zehazteko; proposamenak egiteko ordenantza hau beteko dela ziurtatzeko.

Bigarrena.-Lakuntzako Udalak onetsitako gainerako ordenantza eta xedapenetan jaso beharko da honako ordenantza honetan ezarritakoa.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe gelditu dira maila bereko edo beheragoko ordenantzak, ordenantza honetan xedatutakoarekin bat egiten ez badute edo kontra egiten badute.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.-Behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar egun iragandakoan hartuko du indarra ordenantza honek.

1. ERANSKINA

LAKUNTZAKO UDALEKO ZERBITZUEN LANPOSTUETARAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

LANPOSTUA	MAILA	EUSKARA MAILA
Idazkaria	A	3 HE
Administrari-ofiziala	C	2 HE
Administrari-laguntzailea	D	2 HE
Liburutegiko langilea	C	3 HE
Zerbitzu anitzetako langilea	E	1 HE
Garbitzailea	E	1 HE
Ludotekako hezitzailea	C	3 HE
Musika eskolako irakaslea	B	3 HE
Gizarte Zerbitzuetako teknikaria	B	3 HE
Gizarte zerbitzuetako hezitzailea	C	3 HE

Lakuntzako Udalak egiten dituen kontratazio guztietan, zuzenean edo hirugarrenen bitartez egiten direnean, bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira komunikazio tresna moduan. Lakuntzako Udalak ematen dituen zerbitzu guztien kontratazioetan, berdin zuzenean edo hirugarrenen bitartez ematen dituzenean, euskarazko hizkuntza gaitasun maila bermatuko dituzten eskakizunak bete beharko dira. Hautagaiek gaitasun maila hori egiaztatu beharko dute, proba edo agiri ofizialaren bidez. Hauek dira, kasuan kasuko lanpostuaren beharren arabera, bete beharko diren hizkuntza eskakizunak:

Ahoz eta idatziz euskaraz ulertzea behar denean, 1.HE edo baliokide ofiziala.

Euskaraz ulertzea, hitz egitea eta irakurtzea beharrezkoa denean, 2. HE edo baliokide ofiziala.

Euskaraz ulertzea, mintzatzea, irakurtzea eta idaztea beharrezkoa denean 3. HE, edo baliokide ofiziala.

Gaitasun maila jasoak euskararen ulermen, mintzamen, irakurmen eta idazmenean behar direnean, 4. HE.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN AGIRI ETA BALIOKIDETZAK**HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN BALIOKIDETZAK EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOAREN BAITAN**

EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOA	HEZKUNTZA SAILA. NAFARROAKO GOBERNUA EUSKO JAURLARITZA	HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN, EAEN, MADRILGO HIZKUNTZA ESKOLA ZENTRALEAN	IVAP- HABE EAEN	EUSKALTZAINDIA
B1		3. maila (ikasketa plan zaharra), Tarteko Maila.	1. HE- 1.maila	
B2		4. maila (ikasketa plan zaharra), Goi Maila.	2. HE- 2.maila	
C1	EGA	5. maila, (ikasketa plan zaharra), C1 Gaitasun Maila.	3. HE- 3.maila	D agiria
C2			4. HE- 4.maila	

Iragarkiaren kodea: L0923314